



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Txomin Hualde Elizalde
Pedro Hilario Santesteban Loyarte
Martxel Elizalde Elizalde

2024ko martxoaren 27an, 19:00tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. - AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengo erabaki du:

1.- 2023ko abenduaren 16 eta 20 eta 2024ko otsailaren 2 eta 16ko aktak onartzea.

2.- AURKIDIKO BIDEA HORMIGONATZEKO OBRAK ESLEITZEA.

Zubietako Udalean, 2024ko martxoaren 7an 07:30tan, Kontratazio Mahaia bildu zen, Dokumentazio Administratibo eta Ekonomikoa irekitzeko.

Administrazio Klausula Partikularren Pleguan xedatu bezala, “Zubietko udalerrian Aurkidi bidean hormigoia botatzeko proiektua” esleipenari dagokionez.

Lizitaziora aurkeztu diren enpresen dokumentazio administratiboa idazkariak akta aurkezten du, hurrengoak onartuak egonda:

- Fermin Santesteban Elizalde
- Sasoi Eraikuntzak S.L.
- Excavaciones Mikel Ubiria S.L.

Ondoren, dokumentazioa ekonomikoaren emaitzaren akta:

Nº	EMPRESA	Precio	Puntos
1	FERMIN SANTESTEBAN ELIZALDE	73.150,00€	84,43 puntos
2	SASOI ERAIKUNTZAK S.L	75.620,00€	47,38 puntos
3	EXCAVACIONES	72.111,76	



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

	MIKEL UBIRIA S.L		100,00 puntos
--	------------------	--	---------------

Kontratazio Mahaiaren aktak ikusita, osoko bilkurari behin behineko proposamena aurkezten dio **“Zubietko udalerrian Aurkidi bidean hormigoia botatzeko proiektua”** obraren esleipena EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA S.L enpresari egitea 72.111,76 eurotan, Bez gabe. Pliegoetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu duela egiaztatu du. Espedientea ikusirik, alkateak bozkatzera deitu du eta Osoko Bilkurak, bertaratutako guztiak bat etorrira, aho batez **hurrengo erabaki du:**

1. EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA S.L. enpresari esleitzea **“Zubietko udalerrian Aurkidi bidean hormigoia botatzeko proiektua”** obren kontratazioa, 72.111,76 €, (Bez gabe).
2. **Enpresa esleipendunari kontratua formalizatzeko agirietan eskatzen diren agiriak aurkezteko eskatzea. Pliegoen 17 eta 18 puntuak.**
3. **Zubietako alkateari kontratua sinatzeko boterea ematea.**
4. **Erabakia enpresa esleipendunari eta gainerako lizitatzaillei jakinaraztea.**

3.- ESKAERAK

3.1.- Nafarroa Oinez Zangoza 2024k diru laguntza eskatu dio udalari. Udalbatzak **hurrengo erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

- 1.- **Nafarroa Oinez Zangoza 2024 diruz laguntzea 50 eurorekin.**
- 2.- **Akordia interesatuari jakinaraztea.**

3.2.- Yala Nafarroa con Palestina taldekoek, Palestinarekiko elkertasunean laguntza ekonomikoa eskatu dio udalari. Udalbatzak **hurrengo erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

1.- Yala Nafarroa con Palestina erakundearen eskaera diruz laguntzea 100 euroekin, Mundu bat GKEaren bitartez.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

3.3.- Maria Salanueva Ruiz andreak Yala Palestina Malerrekaeta Bertizarana taldearen izenean estalpea eskatzen du maiatzaren 18rako ekitaldia bat egiteko dirua lortzeko helburuarekin. Sukaldea ere behar dute eta garbiketaz beraiek arduratuko dira. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Estalpea utziko zaie, eta helburua kontutan hartuta, arrazoi humanitariogatik, ez zaie kobratuko. Maiatzaren 20rako giltza bueltatu beharko dute lekua garbia utzita.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

4.-ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (5/2024- 19/2024 ebazpenak).

5.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

-Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Lorenzo Santesteban Baleztena, Josefa Loyarte Elizalde, Jose Maria Juanicorena, Mariano Francesena.---Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduak emandako aprobetxamendu baimenak: Patricia Tellechea Ochandorena, Ana Maria Mugica Santesteban, M^a Carmen Elizalde Elizalde , Juan Miguel Vera Jauregui, --- Eta sakabanatutako zuhaitzen aprobetxamenduko baimena---Eki Gereka Maestraren etxea alokatuta du eta zeinbait eskaera egin ondoren, ekonomika aldatu zen , ura berotzeko termo berritu zen eta argiaren instalazioa berrikusi zen---2024/63, otsailaren 6ko ebazpenan agertzen den dirulaguntza eskatzen da mediku kontsulta berritzeko---Alkatea Elizondon, Garraio zuzendari nagusiarekin bilera batean egon zen. Garraio publiko aktibatzeke helburuarekin bildu ziren eta Zubietan "a demanda" zerbitzua erabiltzeko aukeraz hitzegin zen; aurreko egunean taxia deitu behar da Doneztebera eramateko, hau bait da "cabecera".---Elecnoren arduradunarekin , Javier Pinillarekin kontratua sinatu da. Eskola eta lana erakutsi zitzaion. Bitartean jubiloteka estalpean egingo da.---



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Donamariako ur-hartzea, ETAPA proiektuan obraren eraginak kudeatzen ari dira eta ebatzi ondoren obra lizitatuko da. Obraren gastuak ordaintzeko 2023an dirua gorde zen---PDR ostatuko dirulaguntza eskatzeko udal arkitektuaren aurkako txostena egin zuen eta tresneri berriekin potentzia asko goitzen delako, segurtasun neurriak betetzeko proiektua moldatu beharko da.

6.- GALDE-ESKAERAK

Ez dago galde-eskaerik.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.